




Leire Zubeldia



Ez da ameslarientzako mundua

Lehengoan paperezko hegazkin bat egiten saiatu nintzen, txikitari bezala. Tolestu, moztu, okertu, punta atera, hatsa bota eta hegan! Baina zuzenean jo zuen lurra. Ez zuen zirimolarik egin airean, txikitari bezala. Hegazkinak egiten ahaztu zait.

Aitonak erakutsi zidan paperezko hegazkinak egiten. Biak egiten genuen geure hegazkina, eta batera jaurtitzen genituen airera. A ze poza nire hegazkina aitonairena baino urrunago heltzen zenean. Irudi hori gogora ekartzean konturatu naiz, haurren paperezko hegazkinak hegalaritagoak direla. Helduenak baino denbora gehiago irauten dute airean, txilipurdika, hara eta hona, altuera galduz eta galduz, lurra jotzen duten arte. Esku txikiek egindako hegazkintxoak ez dira batere sofistikatuak izaten, baina ilusioki iraunarazten dituzte airean.

Ametsak paperezko hegazkinak bezalakoak dira. Txikitako ametsak urrunago iristen dira, gehiago irauten dute airean, zirimolaka. Helduen

Nola ikasten da amets egiten? Gizakiaren berezko erreflexua ei da esna amets egitea?

ametsak bizkor galtzen dute altuera, segituan ondoratzen dira. Erori, apurtu, birrindu, txikitu, bota, itzali, bukatu, agortu egiten zaizkigu ametsak. Gure paperezko hegazkinei bezala, hegoak moztzen dizkiete gure ametsai.

Nola ikasten da amets egiten? Gizakiaren berezko erreflexua ei da

esna amets egitea? Ez dakit, baina txikitatik egin ohi du gizakiak esna amets. Nik guardilla batean biziarekin egiten nuen amets. Liburuz eta armiarma sarez jositako apalategiekin, fruitu eta barazki miragarriak emango lituzkeen baratza txiki batekin, etxean kaffagorri hiztun bat izatearekin. Helduak bihurtzen garenean ordea ametsak horma handiak topatzen dituzte. Errealitatea bera da horma hori, eta ametsak honen aurka talka egitean erortzen dira. Hau ez da ameslarientzako mundua. Nekagarria da ameslaria izatea, amets bat eta beste bat ere bai, domino fitxak bailiran erotzen ikusteak nekatu egiten baitu. Horregatik uzten diogu amets egiteari. Eta hara! Amets egitea ahazten zaigu azkenean!

Ez dut pesimistaren itxura eman nahi. Esperantzari ere eman nahi diot lekua lerro hauetan. Amets bat aitortuko dizuet: airean txilipurdika ibiltzen diren hegazkinekin egiten du amets. Umea izan nahi nuke, amets egiteko. Ametsarekin egin nahi dut amets.